



# SARRERA

DBH garaian oinarrizkoa da kontuan izatea duten aldaketa garaia eta taldeko erlazioek eta norberaren identitateen definizioak duten garrantzia. Gainera pentsamendu abstraktua garatzera eta praktikan jartzera bultzatzea.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek sakontze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira.

Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; haurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.



## ETXEKOTZEA

---

### Sarrera

Gaur egun ditugun etxeko animaliak, duela milaka urte, gizakiarekin harremanik ez zuten animalia basatiak ziren; etxeko animalia guztiek dute ahaide basati bat!

Unitate didaktiko honetan bidaia bat egingo dugu denboran zehar, eta etxeko animalien urruneko ahaide basatiak ezagutuko ditugu.

### Aukeratu espeziea

Ikerketa bat egitea proposatzen da. Horretarako, zerrenda honetatik etxe-animalia antzeko bat aukeratu eta fitxa egingo dugu.

- Astoa
- Behia/zezena
- Ardia/aharia
- Txerria
- Oiloa
- Antzara



## Morfologia

Espezia aukeratu ondoren, hari buruzko informazioa bilduko dugu. Eta informazio hori duen taula bat lortuko dugu.

- Eskalako irudia: irudiaren ondoan 1,70 m-ko gizaki baten silueta jarriko da.
- Elikadura: elikadura mota eta jaten duena.
- Zainketa mota: animalia nola zaintzen den, zenbat leku behar duen, kudeatzeko laguntza berezia behar duen.
- Ugalketa: zenbat ugaltzen den eta zer baldintza behar dituen.

## Urrutiko ahaidearen basatiaren bila

Denboran atzera egingo dugu hautatutako espeziearen ahaide basatia aurkituz.

- Izen zientifikoa
- Irudia eskalan
- Bizileku-data
- Non?
- Zer ingurumen-baldintza zituen?
- Ezaugarriak
- Jateko ohiturak
- Noiz desagertu edo etxeratu zen?

## Eztabaida

- Gaur egun, edozein etxe-espezia izan daiteke senide basati?
- Zenbat urte eman ditu gizakiak etxean?
- Zer gertatu zitzaion senide basati horri?
- Bada desberdintasun morfologikorik?
- Zertarako hezi zuten animalia hori?